

## DOMUND eta GMJ: Mugarik gabeko mundu baten entsegua

Misioei buruz katolikuok dugun ulerketara hurbitzeko, beharrezko da bi ikuspuntu hauetatik abiatzea: Lehenengoa, bizitzaren egiazko eragile, ez dirua, ez agintea, ez plazerra ez direnaren gonbentzimendua. Biziaren benetako eragilea Espiritu Santua da. Bigarrena, esperientzia horren ziurtasuna Elizaren baitan, mugarik gabeko mundu baten entsegu gisa.

2011. urteko DOMUND jardunaldiak, nolabait Madrileko JMJ-GMJ ospakizuna luzatzen du, han era guztiz berezian ikustarazi baitzen Elizaren unibertsaltasuna. Topaketa hartan, misioen “alaba” eta, era berean, “ama” den Eliza geure begien aurrean ikusteko aukera izan baikenuen. Gazte haiek guztiak, Gazte-Jardunaldiak ospatzeko munduarekin alderdi ezkutuenetatik etorriak, Kristoren honako misio-aginduaren emaitza dira: *Zoazte mundu guztian zehar eta hotsegin Berri Ona*” (Mk 16,15). Baina, are gehiago, “misio” giroan zetozen gazteak ziren: sekulartutako gizarte bat misionatzen ari ziren, etorkizunean misiolari bokazio hori beraiek nola biziko duten Jainkoak nahi duena aztertzen ari ziren bitartean.

Aipamen berezia merezi du, Katekumenotza Bidearen fundatzaile den Kiko Argüellok, Cibeles Plaza betetzen zuen jendetzaren aurrean, Txina ebanjelizatzeke Elizari 20.000 misiolari eskaintzearen, apaiz eta erlijioso/a bizitzarako prest zeudenen erantzuna eskatuz, aurkeztu zuen proposamenak. Horrela, Gazte Jardunaldia aukerako bozgorailu bilakatu zen misiorako deia egiteko eta, bereziki, III. Mileurteko honetan Asiaren ebanjelizatzea egiazko gerta dadin.

Misioak ez du mugarik; misioa ez da ere zentzu bakarreko ibilbidea, baizik norabide bikoitzekoa gerta ohi da. Horren ezaugarri dira, Amerikan beren misiolari lana daramaten espainiar ugari, Espainia kontinente berritik misionatua den aldi berean.

Duela gutxi, Madrileraa heldu aurretik espainiar herri bateko kaleetan kristau testigantza ematen ari ziren Gazte Jardunaldiko mexikar erromes batzuen pasadizua kontatu zidaten: pertsona talde batek fedea galdua zutenei fede hori transmititzen saiatzea aurpegiatu omen zien: *“Lotsagabe eta gogaikarri batzuk zirela”* esanez. Mexikar haien erantzuna baliotsua bezain apala izan zen: *“Guk zuen aurrekoek erakutsi ziguten fedea onartu genuen, eta orain zuei, gutxienez, guri entzutea dagokizue”*.

Elizan, batasunak edo komunioak mugarik gabeko mundu baten bizipena aurrera eramatea ahalbidetzen du. Eliza hil egingo litzateke katolikotasunaren biriketarik arnasteari utziko balio! Nola ahaztu, bizi ditugun une hauetan, apaizek eta misiolariak bihotz zabaltasunez elkarbana dezaten “Presbyterorum Ordinis” dekretuaren esaldi ezaguna?

*“Ordinaziokoan apaizek hartu zuten espiritu dohainak ez ditu beraiek eginkizun mugatu eta itxi batera bideratzen, “lurraren bazterrerainoko” (Ap Eg 1, 8) salbamen misio guztiz zabal eta unibertsalerako bazizik, edozein apaiz ministeritzak Kristok apostoluei agindutako misio beraren zabaltasunean baitu partaidetza. Izan ere, apaizek egiazko partaidetza duteneko Kristoren apaizgo betea, bere izatearen beharrez, herri guztietara, eta aldi guztietara zuzentzen da, eta ez du ez odol, ez nazio, ez adin mugarik, Melkisedeken irudian iadanik misteriozki adierazten den bezala. Gogora dezaten, beraz, apaizek eliza guztien arreta eraman behar dutela bihotzean. Horregatik, bokazioetan aberatsenen diren elizbarrutietako apaizek prest egon behar dute, euren Gotzainen oniritziz edo eskariz, beren ministeritza apaizgabeziak jotako herrialde, misio eta ekintzetan beren ministeritza betetzeko” (PO 10).*

Aurtengo Misio Iganderako Aita Santuak idatzi duen mezuari dagokionez, honako esaldi hau azpimarratzen dut, bere irakaskortasun bereziarengatik: *“Misio unibertsalak denak, dena eta beti hartzen ditu”*. Hau da, Elizaren misio eginkizuna ez da mugatzen “misiolari” deitu ohi ditugun haien lanaren berezitasunera; ez da ere geure eguneroko eginbeharren gainetik gelditzen zaizkigun indarrak bakarrik eskaini behar dizkiogun eginkizuna ere. Alderantziz, misiolari bokazioa, Kristoren jarraitzaile izateak berezkoa duen loturarengatik, bete-betean “geure” bezala sentitzen dugu: edota, aitzitik, mundu berri baten bila jokoan sartu diren “ameslari” batzuen alde, handiagoa edo txikiago izango den limosna huts izatera bihurtuko dugu.

Barneratu dezagun Benedikto XVI.ren aipaturiko esaldia: -*“Elizaren misioak denak, dena eta beti hartzen ditu”*- Josek eta Mariak lehenengo misiolari izan zen beren Seme Jesusen hitzak barneratu zituzten antzera, Honek hamabi urte bakarrik zituela ohartarazi baitzituen gurasoak beraren misiolaritzaren erradikaltasunaz: *“Ez al zenekiten nik neure Aitaren gauzetan ihardun behar dudala? (Lk 2, 49). .*